


ONDARRIBIKO CHERKOA

1638-AN.



Euskal-erriko mendi puntetan
 Da irrintzi bat aditu,
 Eta ibar ta erri, baserri,
 Bazter danetan banatu,
 Prantsez arrano egakaria
 Dala Españian sartu,
 Zeñak erri bat duen idorrez
 Eta urez ingurutu.
 Ondarribiren gañean ego
 Azkarrak zabaldu ditu;
 An bere begi guztiz zorrotzak
 Ustekabetan tinkatu:
 Ari nai dio atzapar gogor
 Gogorraekin oratu:
 Gipuzkoaren lore polit au
 Nai luke bereganatu.

Zabaltzen ditu *Kondé Lenenak*
 Bere bandera churiak:
 Menderatutzen Donostiraño
 Arkitzen diran erriak:
 Ikuserazten berekin dauzkan
 Tresna ta indar aundiak;
 Ogei milla ta geiago pusil
 Eta sutunpa lodiak:
 Troparik ez dik—beregán dio—
 Biraltzeko dierriak:
 Milla gizon ez erri barrenen,
 Arma gaberik erdiak;
 Illabeteko geien geienaz,
 Daukazkiten bizikaiak;
 ¡Eziñ dezakek iraun denbora
 Luzean Ondarribiak!

Bizkitartean ¿nork andiskatu
 Errian zana pasatzen?
 Dena baña len, Guadalupeko

Birjiña dute jechitzen
 Eta auspezturik oñetan umill
 Bere laguntza eskatzen,
 Zar eta gazte, aundi ta chiki
 Denak dute ziñegiten,
 Milla bider ill naigo dutela
 Ez utzi errira sartzen:
 Suturik biotz alaiak dira
 Murru guzian zabaltzen
 Perill aundia non dagon ura
 Dutelarik eskatutzen:
 Emakumeak ere dirade
 Gizon jantziak prestatzen.

¿Zertan zaudezte, ordea klarin
 Eta atabalak jo gabe?
 Ainbeste indar, aiñ guchirentzat,
 Lotsatutzen etzerate?
 Gaztelucho ta gordelekuak
 Alchatzen ari zerate?
 ¡Zenbat prestamen alper alperrik
 Egiten ari dirade!
 Sutunpa luze izugarriak
 Zuzen paratzen dituzte:
 Iskanbill eta oju aundiaz
 Gogor su egiten dute;
 Oñaztarriren chinpart gorriak
 Dabiltzala dirudite,
 Erri guzia erre nairikan,
 Eta ala ere diote:
 Au ez da ezer. Begira nola
 Datozkigun menditarrak:
 Ujolde baten gisa ona non
 Datozen napar azkarrak;
 Pirineotik oriek bota
 Dituzte prantsez malzurak:
 Aizea baña ariñago ¡ai!
 Emen datoz Tolasarrak:
 Bai eta ere Azpeititikan
 Galai gazte chit pizkorrak:
 ¡Eup...a...a mutillak! berdin ditzagun
 Antzinako aiton zarrak:

Sutunpak egin bitza soñuak
 Porrokatu murrutzarrak;
 Arpikorekin zulatu eta
 Su eman archerotzarrak;
 Deus ez da ori. Ona non diran
 Laguntzera datozenak:
 Ona Nabas ta Orreagako
 Aitonen seme bikañak:
 Guchi dirade, egiaz, baña
 Banan banako mutillak;
 Orniturikan gelditzen dira
 Ill zaizkigun anai onak.
 Betoz millaka suponpak ere,
 Larrutu murru erbalak;
 Ireki brecha, egin bidea,
 Artu ongi neurri denak;
 Alper alperrik izango dira,
Kondé, zure egñalak;
 Sekula emen ez dituzu, ez,
 Paratuko zure oñak.....

Gogor berriro ekiten dio
 Arrabiaz beterikan;
 Karrask egñiaz ortzai an doaz
 Murrura igo nairikan:
 Iru, lau, bost, sei, zazpi asalto¹
 Ala ere alperrikan;
 Barrengo otserru eta supitaz
 Osoro izuturikan,
 Itzuli egin dute guziak
 Lurrera armak botarikan.
 Iñork ikusi ez du istillu
 Aiñ ikaragarririkan
 Zortzigarrengo aldian ona
 Non berriz asitzen diran,
 Buru kapitan azkarren aek
 Egiten dutelarikan.

Amorratuak dute gudadzen
 Murrua eziñ arturik:
 Amilka doaz murrubira,

(1) Eraso.

Aurrera eziñ egiñik:
 Pillaka daude or eta emen,
 Auzkalo zenbat illotzik:
 Chirrioz doa jene! odola
 Ausarki alde bietatik;
 Eta ala ere, ekin diote
 Berriro eziñ etsirik!
 Azken indarrak egin naiean
 Supertasunez beterik,
 Igotzen dute azkarren aek
 Murrura; baño alperrik;
 Lantzaz jo eta lurrera denak
 Bata besteren ondotik!

Baña ¡ai! zeñen garesti duten
 Garaipen au irabazi!
 ¡Zenbat guraso, anai ta umek
 Duten odola iñuri!
 Beti burruka irurogeita
 Zortzi egun daramazki,
 Eta beñere laguntzarikan
 Ez da kanpotik agiri!
 Eta ala ere, *Egiak* eta
Butronek: ¡deus ez da ori!
 Emango degu azken-asnasa
 Baña sartutzen ez utzi!....
 Orru egin du leoiak eta
 Ikaraturik igesi,
 Lasterka doaz, dituztelarik
 Buruko illeak zuti.
 Murru erdiak lurrean daude,
 Kiskalirikan erria;
 Zaldiz liteke sartu barrena
 Illik jenderen erdia;
 Eta zer, *Kondé*, ¡igesi oraiñ
 Zure jendadi aundia?
 ¡Igesi ere, aingura alcharik,
Sourdis zure ontzidia?
 ¡Non dira zuen erronka aundiak,
 Non zuen arrokeria?
 ¡Zer egin zuen azkartasun ark,
 Non da zuen andinaia!

¡Zoazte emendik!... zuen izarrak
 Egiten zuen argia,
 Oriturikan, gaurdik aurrera
 Gelditutzen da guzia.

Dardar egin du arranotzarrak
 Dago gaizki eritua:
 Kabira doa iñuri duen
 Odolez choll gorritua:
 Egazterrena beziñ egoki
 Etorri zan apaindua,
 Eta millaka luma ederren
 Aek laja ta dijua.

¡Zoaz ondocho! eta itzultzen
 Badezu berriz burua
 Mendi oetan izango zera
 Berritotik larrutua:
 Lur santu ontan Erroma ere
 Izandu zan garaitua,
 Ustez mundua zeukan denboran
 Betiko menderatua.

Aputiozko uztarririkan¹
 Ez du nai Euskal-erriak:
 Muga oriek gorde zitzala
 Esan zion dierriak,
 Eta lenago berdiñ izango
 Dira zelai ta mendiak
 Ez oek porchaz irago eta
 Beregandu atzerriak.
 Baña ¿zergatik alako setaz
 Garaitu arte etsaiak,
 Gudatu ziran Ondarribian
 Gure menditar burkoiak?²
 ¿Bildur ziraden irachitzeko
 Burnizko kate lodiak?
 ¿Nai zizkioten dierriari
 Geitu dinbere aundiak?
 ¡A! Gurutzea ta Arbola ziran
 Eskudatzen zituztenak;
 Aitorrek utzi zizkien izkuntz,

(1) Ultrajante yugo.—(2) Pertinaces.

Lege ta oitura onak;
 Ibar, mendiak, baso zelaiak,
 Sukalde kedarredunak.
 ¡Ai balirake alchatuko gaur
 Orduan ill ziradenak
 Aiñ pozik euren odola eta
 Bizia eman zutenak;
 Ondarribian obi otzean
 Dauden napar euskaldunak!
 Oju egiñaz lirake etzango
 Urraturikan biotzak
 ¿Orretarako izandu ziran
 Egin giñuzen azañak.

.

¡Umant illezkor paregabeak!
 Alabanzak zuendako;
 Izkribatuak daude kondairan
 Zuen izenak betiko:
 Mundua mundu dan artean ¡a!
 Ez dirade, ez, aztuko:
 ¡Ai balirake lurtean dauden
 Murru beltzak mintzatuko!.....
 Mundu igeskor naasi onetan
 Guzia da iragoko;
 Dierri, erri jargoiak dira
 Batzuetan goitituko;
 Besteetan berriz beetitu eta
 Bai eta ere aituko:
 Zuen omena ez du ordea
 Ezerk ese illunduko.

CLAUDIO DE OTAEGUI.

